


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,6 igo dira 2024ko martxoan

Urte artean, 2024ko martxoa eta 2023ko martxoa alderatuta, prezioak %2,4 igo dira.

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizea %0,6 igo da 2024ko martxoan, aurreko hilaren aldean. 2023ko hil beraren aldean, kostuak %2,4 gehitu dira.

Eraikingintzako kostuak %0,5 igo dira eta Obra Zibilekoak %1,1. 2023ko martxoarekin alderatuta, prezioak %2,3 igo dira Eraikingintzan eta %2,9 Obra zibilean.

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte- arteko aldakuntza-tasak sektoreka



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Aurreko hilaren, 2024ko otsailaren aldean, **lehengaien** kostuak %0,8 igo dira, eta **eskulanaren** kostuak, berriz, ez dira aldatu. Urte arteko datuei dagokienez, lehengaien kostua %1,5 igo da, eta eskulanarena %5,4.

Lehengaien kostuak hil arteko %0,7 egin du gora Eraikingintzaren sektorean, eta %1,4 Obra Zibilean. Urte arteko bilakaeran, Eraikingintzako lehengaien kostuak %1,4 igo dira eta Obra Zibileko lehengaienak %2,2.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Martxoak 2024

	Indizea	Aldakuntza (%)	
		m/m-1	m/m-12
Guztira	130,0	0,6	2,4
Eraklinak	129,2	0,5	2,3
Obra zibila	133,5	1,1	2,9
Lehengaiak	131,3	0,8	1,5
Eraklinak	130,3	0,7	1,4
Obra zibila	135,9	1,4	2,2
Laneskua	125,5	0,0	5,4

Oinarria 2015=100

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

(p)Behinbehineko datuak

Data 2024ko Apirilaren 25a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Eraikuntzaren sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioak, 2024ko martxoan 2023ko martxoaren aldean, honako azpisektore hauetan gehitu dira gehien: *Mineral ez-metalikoak* (%8,9), *Material elektrikoa* (%4,1) eta *Altzarigintza* (%2,3). Aldiz, sektoreko lehengaiak diren produktuak produzitzen dituzten azpisektore nagusiak eta gehien jaitsi diren prezioak honako hauek izan dira: *Energia elektrikoa eta gasa* (%38,9), *Ez-metalezko mineralen industria* (%9,6) eta *Zurgintza eta kortxoaren industria* (%5,4).

Euskal AEn kontsumitutako lehengaien prezioak, sektorearen arabera (A64). Urte arteko aldakuntza-tasa (p) . Martxoak 2024

	m / m-12
Ezmetalezko meak	8,9
Zuraren eta kortxoaren industria	-5,4
Petrolioaren flintzea	-2,7
Industria kimikoa	-4,6
Kautxua eta plastikoa	-0,3
Produktu mineral ez-metalezkoak	-9,6
Metalgintza	-3,7
Metalezko artikulak	1,6
Material elektronikoa	-0,2
Material elektrikoa	4,1
Makineriaren fabrikazioa	1,6
Altzarigintza	2,3
Energia elektrikoa eta gasa	-38,9

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2024ko Apirilaren 25a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Informazio gehiago:

[Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

[C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz](#)

[Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tlf: 945 01 75 62